

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko apirilaren 17ko 51/2018 Foru Dekretuan atzemandako hutsen zuzenketa. Foru dekretu horren bidez, Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren sorrera eta osaketa arautzeko Bizkaiko Foru Aldundiak emandako uztailaren 20ko 125/2016 Foru Dekretua aldarazten da.

2018ko apirilaren 19an (osteguna), 75. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen goian aipatutako Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko apirilaren 17ko 51/2018 Foru Dekretua.

Bizkaiko Aldizkari Ofiziala arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 97/2009 Foru Dekretuaren 17.2.2.a) artikulua honako hau ezartzen du: agiriaren zentzua aldatzen ez duten edo testuingurutik argi eta garbi ulertzeko aukera ematen duten akatsak edo akats materialak daudenean, baina gerta daitezkeen nahasteak ekiditeko asmoz zuzentzea komeni dela erabakitzen bada, akats horiek zuzendu egingo dira, agiria dagokion organo edo erakundeari testua edo testuaren beharrezko zatia, zuzenketa eginda, berriro bidal dezan eskatu ondoren.

Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren sorrera eta osaketa arautzeko Bizkaiko Foru Aldundiak emandako uztailaren 20ko 125/2016 Foru Dekretua aldarazi duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko apirilaren 17ko 51/2018 Foru Dekretuan halako hutsak atzeman direnez, zuzendu egin behar da.

Artikulu bakarraren bi zenbakian

— *Hau dioen lekuan:*

- Fiskalizazioaren arloko Zerbitzu eskuduneko burutzako titularra.
- Ordezkoak: Fiskalizazioaren arloan eskumena duen Zerbitzuko aurrekontuen eta ekonomiaren kontrolerako eginkizunak dituen goi-mailako teknikaria.

— *Honako hau esan behar du:*

- Fiskalizazioaren arloko Zerbitzu eskuduneko burutzako titularra.
- Ordezkoa hauetako edozein izango da: Fiskalizazioa Zerbitzuko Gastuak Fiskalizatzeko Ataleko burua edo Fiskalizazioaren arloko Zerbitzu eskuduneko ekonomiaren eta aurrekontuen arloko kontrola egiteko funtzioa duen goi-mailako teknikari bat.

Bilbon, 2018ko maiatzaren 9an. — Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua, Ibone Bengoetxea Otaolea